

7.EKINNOVA - FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideakaz jarraitzeko, baliabide fisikoei dagokionez gure aplikazioa egiteko behar diran materialak eskuratu beharko doguz: ordenagailua, bulegoa eta gure jokuaren programatzaileak behar izango dauazan osagaiak edo materialak jokua egiteko.

Baliabide intelektualei dagokionez, taldeko partaide guztien ideiak kontuan hartuko dira aplikazioa diseinatzeko orduan.

Giza- baliabideekaz jarraituz, guk egin ezingo doguzan hainbat jarudera, adibidez, aplikazioa programatzeko eta sortzeko, espezialista edo programatzaile baten laguntza behar izango dogu. Beraz, programatzaile talde bat kontratatu beharko dogu proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Azkenik, baliabide finantzarioei buruz hitzegiten, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzatik eta Ecoembes erakundetik diru-laguntzak jaso ahal izango geunkez. Honegaz bat, Ecoembes-ek ingurugiroa garbi mantentzeko proiektuetan dirua inbertitzen dauanez, diru-laguntza eskaini ahal izango euskun. Gainera, Gazte Enpresa erakundetik be 34.500 euroko mailegua jasotzeko aukera izango geunke, erakunde honek laguntza finantziarioa eskaintzen deuselako ekintzaile gazteei euren proiektuak aurrera atara ahal izateko.

Horretaz aparte, gure gurasoek, lagunek eta inbertsore posibleak be gure proiektua aurrera eroateko dirua eskaintzeko prest egongo litzatekez. Orain aipatutakoaren aurrezkia 6.000 eurokoa izatea estimatzen da.